

## Ostiralean, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Berdintxiketan Berdintasunaren aldeko V. Lasterketa Mistoia egingo du Oñatin.

2015/05/14

Berdintasuna sustatze aldera, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Berdintxiketan Berdintasunaren aldeko V. Lasterketa Mistoia antolatuko du. Maiatzaren 15ean, ostiralean, 19:30ean, egingo da Oñatin eta 16 urtez gorakoek parte hartu ahal izango dute, bikote mistoetan. Korrikalariek bakarka ere parte hartu ahal izango dute, baina lehen hiru saridunak bikote mistoak izango dira. Aurten, lehen aldiz, patinatzaileek ere parte hartuko dute.

Lasterketa maiatzaren 15ean, ostiralean, izango da 19:30ean. Ibilbideak bost kilometro izango ditu, eta Enpresagintza Fakultatean hasi eta Foruen Enparantzan amaituko da. Lasterketaren helburua ez da bikotekide batekin korrika egitea bakarrik, berdintasunaren aldeko herri-lasterketa batean parte hartzea baizik. Lasterketa horren bitartez, emakumeek kirola egitea sustatu eta, lehiatik harago, kirola egiteko beste modu batzuk daudela erakutsi nahi da. Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete, hemen:

<http://sites.google.com/a/mondragon.edu/berdintxiketan/home>



**BERDINTXIKETAN**  
Bikote mistoen Oñatiko 5. lasterketa  
KORRIKA EDO PATINEKIN (PATINEKIN KASKOA DERRIGORREZKOA)



5 km

**Noiz:** 2015eko maiatzaren 15ean, ostirala, arratsaldeko 19:30etan

**Non:** Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean, Oñati

**Izen Ematea:**  
[berdintxiketan.lasterketa@gmail.com](mailto:berdintxiketan.lasterketa@gmail.com)  
[sites.google.com/a/mondragon.edu/berdintxiketan/](http://sites.google.com/a/mondragon.edu/berdintxiketan/)



**Antolatzailea** **Babeslea** **Laguntzaileak**



MONDRAGON UNIBERTSITATEA



ENPRESAGINTZA FAKULTATEA



OÑATIKO UDALA



goiena



EROSKI

zuzend. in